

Licencias literarias

Escuchando historias

Querido lector/a. Escuchar historias en vez de leerlas no es algo novedoso. Los más veteranos recordarán seriales radiofónicos como *Matilde*, *Perico y Periquín* o *Simplemente María*, pero pocos sabrán que la primera novela escrita para la radio emitida en España fue *La muerte de Mister Stay*, que Radio Ibérica de Madrid comenzó a radiar en enero de 1926 y que emitió a lo largo de dos meses. En ella se relataba un misterioso crimen con la peculiaridad de que, tras mostrar todos los datos recabados por los detectives, los radioyentes tenían que acertar la resolución del caso con el incentivo de ganar 500 pesetas de la época.

Con estos antecedentes no extraña comprobar cómo, casi un siglo después, el consumo de audiolibros adquiere cada vez más importancia.

El Barómetro de Hábitos de Lectura para 2022, elaborado por la Federación de Gremios de Editores de España en colaboración con el Ministerio de Cultura, cifra que un 5,4 % de la población consume al menos un audiolibro por trimestre, porcentaje mayor que el registrado en 2020, que era del 3,1 %.

Este crecimiento de las novelas en formato audio crea un escenario competitivo entre las diferentes plataformas, la mayoría de ellas dependientes del modelo de suscripción, para atraer la atención del consumidor.

Una de las formas de conseguirlo es la creación de novelas originales y exclusivas para el formato audiolibro, en las cuales se suele invertir más dinero y en las que se utilizan diferentes voces para cada personaje, efectos de sonido e incluso música. Todo esto hace que la experiencia sea más completa, evocando sensaciones similares a las de las radio-novelas.

Queda claro que escuchar una buena historia no tiene edad, ya sea frente a una antigua radio o con los auriculares del móvil. Lo peculiar es comprobar cómo este formato nos acerca al pasado, pero también al futuro inmediato, a la inteligencia artificial, ya que, la necesidad de aumentar la producción de una manera más rápida y económica está haciendo que las alternativas a las voces humanas se estén desarrollando rápidamente, con lo que cada vez serán más habituales.

Y vosotros, ¿sois de audiolibro o preferís que nadie os cuente historias?

Noelia Lorenzo Pino

Euskaraz idatzitako lehen polizia eleberria

Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainen* liburu gaurkotua plaza-ratu du Erein argitaletxeak duela aste batzuk. Liburu zaharra bada ere, argi dago gaurkotatua ez duela galdu, eta Ereinek gaur egungo euskal irakurleak honela sustatu nahi ditu: "Jose Antonio Loidi Bizkarrondoren *Amabost egun Urgain'en* eleberraren edizio berria dugu haxe; gaur egungo irakurleek arazorik gabe irakur dezaten finkatu nahi izan dugu 1955eko testua, Loidiren eta gure hizkuntzaren orduko doinua eta kolo-rea galdu gabe, ordea".


Baina testua gaurkotzearen arrazoia ere beste bat da: duen balio ematea. Izan ere, oso jende gutxi irakurri omen du lan berezi hori. Zergatik berezia? Euskaraz idatzitako lehen polizia-eleberria delako. Beraz, gure euskal literaturaren barruan mugari izan zen lana da.

Jon Alonso arduratu da edizio berriaz eta berak honako hau dio liburuaren hitzurrean: "Jose Antonio Loidik 1955. urtean argitaratu zuen *Hamabost egun Urgainen* nobela. Diotenez, idatzi ezezik, Loidik berak ordaindu eta zabaldu zuen mila aleko lehen edizio hura. Frankismo beteko urteak ziren, eta euskaraz ezer argitaratzea heroismoarekin muga egiten zuen jarduna zen. Horregatik bakarrik Loidik toki kuttun bat merezi du euskal literatura aintzat hartzen dugun guztion bihotzean".

Badirudi liburuaren egileak, Jose Antonio Loidi Bizkarrondok, euskaraz idazten trebatzeko, oso gustukoa zuen polizianobela bat itzultzea bururatu zitzaioela, baina itzulpen hura egitea lan izugarria izan zitekeela konturatu omen zen eta bere kasa nobela bat idazteari ekitea pentsatu zuen, jenero poliziko-koa alboratu gabe. Horrela sortu omen zen *Amabost egun Urgain'en*.

Diogun moduan, lehen argitaraldia 1955ean izan zen, Kullika sorta eder haren barruan. Gainera, ondo irakurri baldin badut, Euskaltzaindiaren literatura lehiaketa batean aurkeztu zen lan hori eta aipamen berezia jaso zuen.

Liburuaren egiturak garai hartako adituen iritzi asko sortarazi zituen, genero horretan sartzeak, agian, bestelako irizpideak eskatzen baitzuten. Hala, M. Hernandez Abaituak genero poliziako intelektualaren sailean sartu zuen, eta Gotzon Garate maisu maitagarriak lanaren benetakotasuna azpimarratu zuen, eta modu batean edo bes-



Jose Antonio Loidi Bizkarrondo



Hamabost egun Urgainen nobelaren aurkezpen ekitaldia

tean asmatu zuen esandakoarekin: "Guk euskaldunok egunero ikusten ditugu hor gertatzen diren gauzak. Hor agertzen diren pertsonak gu bezalakoak dira. Gainera badu beste alderdi ona: herri txikian gertatzea. Polizia eleberraren gertakariak Bilbon gertatzen badira, mundu artifizialean gaudela ohartzeko gara. Polizak euskaraz ari dira, dendariak euskaraz, drogazaleak euskaraz. Bilbon ordea, horiek guztiok espainolez mintzo dira. Urgainen aldiz, guztiak dira euskaldunak".

Izan ere, lan horretako hizkera erabat herrikoia zen, inolako garbizalekeriarik gabe. Hortaz, jatorra. Eta horren aldekoak ziren garai hartako irakurle asko. Eta hala gelditzen da demostraturik, libururik irakurriena izan baitzen sasoi hartan.

Koldo Mitxelena handiak lan horren gainean artikulua bat idatzi zuen *Egan* aldizkarian eta honako hau esan zuen: "Hona non sortu zaigun bat-batean,

idazle trebea ez ezik, askozaz gehiago behar duguna: nobelista bat. Ez du saiaketa luzeetan aritu beharrik izan. Badakizki, inon ikasi gabe, nobelagile batek jakin behar dituen gauzarik nagusienak. Pertsonak ederki ikusten ditu, bai barrendik eta bai kanpotik, nor bere bizi du, berez, ari dira eta berez mintzatzen. Inork behartu gabe. Badaki gertakariak bat besteari josten eta, hori aski ez dela, ederki -arin, zorrotz eta biziro- ematen dizkigu aditzera".

Lan hori tesi marduletan ere aztertu da. Hala, Jabier Cillerok Euskal Herriko polizia nobelari buruz idatzirik tesian hamabost orrialdeko kapituluak eskaini dio Loidiren eleberriri *Jose Antonio Loidi: Author of the First Detective Novel in Basque* titulupean.

Izan ere, lan horrek polizia eleberrien ezaugarri klasikoak omen ditu, eta hala deskribatu dute aditu askok: "Eleberraren hasieran kokatu da pertsonaia



Liburuaren hizkera erabat herrikoia zen, inolako garbizalekeriarik gabe; hortaz, jatorra

guztien zerrenda. Kapituluak atal motzetan eratu dira misterioa sortu eta argitzeko antolaketan klasikoan. Azken eszenan detektibeak susmagarri guztiak bildu eta denei azaltzen die zer gertatu zen benetan. Ez da eleberrian indarkeria fisikorik aurkezten eta oso lausoki deskribatzen da eta gizarte giroa eta protagonista erdi-mailakoak dira, irakurle gehienek mailakoak". Beraz, suspensea punta batetik bestera zabaltzen da, eta korapiloa ez da amaierara arte askatzen.

Argi dago garai hartaraino oso hedaturik zegoen ohitura-eleberraren egonkortasunarekin apurto zuela lan berri horrek, eta euskal literaturak erabiltzen zituen erlijio gaiak ere gaintitu zituen.

Irakurri nahi baduzue lanaren trama haxe duzue: Urgain bezalako herri baketsuetan ere gertatzen dira gauza ikaragarriak. Galde diezaiotela, bestela, Txomini, kanposantuko arduradunari. Txomin kanposantuan zegoela, hildako gizon bat lurperatu behar zuen eta bere erraina dagoeneko hilda zegoenez, honen alboan lurperatu zuen. Baina emakumearen hilotza ikustekoan harridura geratu zen, kopetan tiro bat zeukala ikusita. Harriduraren poderioz, alkatearengana joatea erabaki zuen. Bere etxean zegoela, emaztearekin hitz egiten aritu zen eta alkatea etxean ez zegoenez, ikusitakoa emazteari azaldu zion. Honek ez zekien zer egin eta irtenbide bila herriko sendagileari deitu zioten. Sendagileak ez zuen ezertxo ere ulertzen eta guztion artean Garaidiri, Donostiako ikertzaileari, deitza erabaki zuten. Garaidik kanposantura joatea proposatu zion emakumearen gorpua ikusteko asmotan eta ondoren erabakiko zuten zer egin.

Trama hori baina, esan dugun bezala, pixkanaka-pixkanaka korapilatuko da, eta irakurlearen arreta gero eta gehiago bereganatuko du.

Juanra Madariaga